



Zurriolako Ataria

56. alea

2019-03-29

Ikastolaren Festa: egitaraua eta laguntzeko modua osatuta

Aurtengo Ikastolaren Festako (maiatzak 4) antolakuntzak osatu ditu jaiaren egitaraua eta bertako zereginetan laguntzeko modua. Zirkular [honetan](#) duzue lagundu ahal izateko beharrezko informazioa guztia. Animatu!



Tekno. berriak eta menpekotasuna: LH eta HHko gurasoentzat

Teknologia Berrien erabilera desegokiak sortzen dituen arriskuei buruzko guraso-eskola arrakastatsuak aurrera darrai (Zirkularra). Datorren astean LH (Apirilak 2) eta HHko (Apirilak 3) gurasoen txanda da. Hurran izango dira hitzaldiak. Sarrera libre da baina beharrezkoa da izen-emate orria betetzea. Azalpenak euskaraz eta 17:30ean izango dira.



Bide Hezkuntza

LH2-6 eta DBH1-2 bitarteko ikasleek Bide Hezkuntzako saioak izan dituzte aste honetan Donostiako Udaltzaingoa eskutik.



Uliako ur biltegietan LH4koak

Joan den astean Uliako ur biltegi zaharrak bisitatu zituzten LH4ko ikasleek. Bertan Txanelan lantzen hasi diren ura gaian sakontzeko aukera izan zuten.



Azoka solidarioa eta arte erakusketa

LH6ko ikasleek azoka solidarioa antolatu dute gaur. Bertan, eurek sortutako ipuinak eta elkarte solidarioei buruzko triptikoez gain, mota guztietako eskulanak eta bizkotxo, gailleta zein trufa goxoak jarri dituzte salmentan. Bildutako dirua, NUPA elkartearentzat izango da. Bestalde, bertaratutakoek LH5ekoek 2. hiruilekoan buruturiko lanak ikusi ahal izan dituzte, frontoian atunduriko arte galerian.



Aurrekontu irekien aurkezpena

Imanol Lasa, diputatua eta Joseba Muxika, partaidetzako zuzendaria etorri zaizkigu ikastolara, Batxi1eko ikasleekin topaketa bat egitera. Bertan Gipuzkoako Foru Aldundiaren funtzionamendua azaldu digute eta aurrekontu irekietan biztanlerien partaidetza zein garrantzitsua den jakinarazi digute.



Zinetek, azken saioa

Asteartean Ekonomiako Batxi 1eko ikasleak Zinetekeko azken saioan izan ziren. Oraingoan, beraiek izan ziren aurkezleak. **Begoña del Tesorekin** elkarlanean "Corporate" filma aurkeztu zuten eta ondorengo debatea gidatu zuten, arrakasta handiz. Gure ikasleentzako esperientzia paregabea izan zen eta maila handiz bete zuten beraien lana.



ZURRIOLA IKASTOLA BATXILERGOA

ARTE BATXILERGOA DUEN IKASTOLA BAKARRA

ATE IREKIAK
Apirilak 4, 18:30
AURREMATRIKULAZIOA
Maiatzak 2-14

BATXILERGO MODALITATE GUZTIAK
ZIENTZIAK
GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
ARTEAK

www.zurriolalikastola.eus
943272587

Zurriola ikastola

2. Hiruhileko emanaldiak

Apirilak 5. ostirala	Esku-goinuko eta bioliniko ikasleen emanaldia	Alegorrialako musika gelan	17:15ean
Apirilak 11. osteguna	Pianoko ikasleen emanaldia	Hurrako musika gelan	17:30etan

Zurriola Musika eta Dantza Eskola. 2. hiruhilekoari amaiera emateko bi emanaldi izango ditugu ikastolan. Apirilak 5 eta 11an.

OHARRAK / AGENDA:

- **HH:** 21. Korrika girotzen! [Zirkularra](#).
- **HH4:** Beizama. Guraso bilera. [Zirkularra](#).
- **HH4:** EHU. Goiz pasa. Apirilak 3an Txiba eta Jostailu taldeak. Apirilak 5ean Kometa taldea. [Zirkularra](#).
- **LH3-4:** Igeriketa ikastaroa. Goizez. Apirilak 8-12. [Zirkularra](#).
- **LH3-6:** 2. ebaluazioko noten buletinak [Alexian](#) ikusgai.
- **LH6:** Inter Red-en eskutik saioa. Apirilak 3.
- **DBH1:** "Zaintzen iraultza" formakuntza. Apirilak 3.
- **DBH1-2:** Giza Eskubideen Zinemaldia. Victoria Eugenia. Apirilak 5.
- **Jangela:** Apirilako [menua](#).
- **Eskola Kirola:** 18. jardunaldia. A eta B.
- **Zurriola Antzerki Eskola:** "Handitzen, handitzen" saiorako kasting [deialdia](#).
- **Aisialdiko jarduerak haurrentzat:** [Martxoak 29-Apirilak 1](#).

